

ERLIJIOA ETA ERLIJIOAK

Paulo Agirrebaltzategi

Erljioaz ez dago hitz egiterik erljioak daudela kontutan eduki gabe. Erljioaren fenomeno ugaria da beraren adierazpidetan; baina erljioaren esperientzia ere ez da erabakarra. Kontzeptu abstraktuen arazo eskolastikoari begiratu gabe ere, esan daiteke ez dagoela erljiorik, erljioak daudela.

Nola definitu orduan erljioaren kontzeptua? Nola mugatu horren barrutia?

Esperientzia pertsonal eta elkartekoa, batetik, eta fenomeno sozial eta kulturala, bestetik: horra erljioa(k) aztertzeko lehen hurbilketa, nolabaiteko bereizkuntza eginez. Baina seguruenik ez dugu aurrera-urrats handirik egin, bereizkuntza bera nahasgarria izan daitekeelako, eta bi ikuspegi horiek erljioaren gertakari berberaren bi aurpegitzat hartu behar direlako. Bestalde, pertsona, elkartea, gizartea eta kultura: horien fenomeno historikoak --eta, beraz, definizioak-- ez al daude erljiozkoarekin lotuta? Ik. Erljiozko esperientzia.

Baina gogoeta horiek alde batera utzirik ere, lehen zailtasuna dator erljiozkoaren esperientzia-fenomenoen izaeratik bertatik.

Erljiozko giza esperientzia *Misterioarena da: horren errebelazioaren eta gizakiaren fedearen arteko topagune horretan gertatzen da. (Errebelazioa eta fedea erljioaren alorrean har daitezkeen adiera zabalenez ulertzen ditugu hemen noski). Esperientzia bizia denez, hain zuzen, bizipen horretatik ikusten dute gizabanakoak eta gizataldeak (*elkartek) erljioaren izaera; eta normalean zerbait absolututzat gainera, Misterioarekiko esperientziari dagokionez, absolututasun hori esplizitatu eta formulatuko ez baldin badute ere gehienetan, bestelako esperientziei buruz. Ik. Agerkundera; Fedea.

Erljiozko fenomeno historikoa kulturazkoa da: Hau da, kultur sistema bakoitzaren osotasunean eta barruan du bere lekua. Horien barruan erljiozkoak betetzen duen funtzioa ere ezberdina da. Alde horretatik kulturen aniztasuna eta erljioen aniztasuna parekoak dira, eta kultura definitzeko zailtasuna du erljioaren definizioak ere. Ik. Kultura eta erljioa.

Horrekin ez dugu ukatu nahi erljio batzuren unibertsaltasun-dinamika edota kristautasunaren katolikotasunaren irakatsia. Badute, ordea, sakoneko zerikusirik bi puntuek; eta funtsean erljio horien "erljiotasunari" buruzko galdera sortzen du horrek, eta ondorioz erljioaren kontzeptuarena. Ik. Elizaren katolikotasuna.

Kontzeptu historikoa da erljioarena gertatzez: hau da, ez da abstrakzio filosofikoaren bidez eratorria; halako kultur tradizio historikoaren fruitua da; mendebaldir zibilizazioarena, hain zuzen ere. Hitza bera latinezko **religio**-tik dator. Horren adierazpen etimologikoak aparte, funtsean mendebaldeko kultur tradizioari lotuta dago erljioaren beraren historia kontzeptuala eta horren hedapena bestelako kultur eta erljio-tradizioetara.

Arazoa larriagoa gertatzen da, erljioaren kontzeptuaren historia eta hedapena kristau-tradizioari lotuta dagoela ikusten badugu, dagoen bezala, Tertulianoengandik hasita. Horrek esan nahi du, kristau-teologiaren eta kristautasunak bere buruaz eta beste "erljioen" balioaz duen ikuskeratik dagoela erljioaren beraren kontzeptua. Kristautasunak, berriaz, errebelazio absolututzat eta unibertsaltzat dauka *Jesukristorena. Kristautasuna baldin bada erljio absolutua, beste guztiak erlatiboak dira: hau da, kristautasunetik daude nolabait: edota, bestela, gezurrezko erljioak dira, kristautasunaren aurrean baliorik ez dutenak eta "idolatriak"... Interpretazio guzti horiek agertzen dira kristautasunaren tradizioan. Ik. Kristautasuna; Idolatria.

Dena dela, guzti horrek esan nahi du, erljio ez-kristauei ere erljiotasuna aitortzen diela, kontzeptu mailan, mendebaldeko kristau-tradizioak. **Erljioak** dira, nahiz eta erlatiboak, gezurrezkoak edota faltsoak izan. Besterik da, *erljio-gisako edo *sasi-erljiotzat jotzen dituen beste sistema ideologiko edo sozialena.

Erljioaren kontzeptua kristautasunak "monopolizatzean", alde batetik historikoki determinatu eta bideratu egin du horren definizioa, eta, bestetik, bestelako sistema "erljiozkoek" egokitu die. "Monopolio kontzeptual" hori, ordea, ez da erabatekoa, eta kontradikzioz

betea dago, bereziki azken mendeotan. Izatez, badirudi, kristautasunak bere funtsean daramala erljioaren kontzeptuaren kritika ere, eta horren nolabaiteko ukapena. Ik. Kristautasuna.

Nahasmendua areagotu egin da noski erljioaren kritika modernoaren ondorioz. Mendebaldeko kristau-tradiziotik bertatik etorri da kritika hori funtsean, eta erljioarenarekin batera kristautasunaren beraren kritika eta ukapena gertatu da sarritan. Zenbait eskola filosofiko moderno erljioaren kontzeptuaren beraren eta horren hizkeraren Baliagarritasun zientifikoa eta errazionala auzipean ipini eta ukatzeraino iritsi da; ondorioz, jakintzen eta zientzien artean erljiozkoak eskatzen duen eta lortu uste duen statusa auzipean jartzeraino. Ik. Kritika (Erljioarena); Sinboloa.

Aldi berean, ordea --eta batzutan kritika filosofikoaren ihardespene gisa-- kristautasunaren erljioetasuna ukatu dute kristau-teologo batzuk, erljioa bera funtsean *idolatriatzat hartuz; kristautasuna, beraz, *fedea litzateke eta ez erljioa. Erljio-kritika filosofikotik ihesi, babesa bilatzea besterik ez ote da hori? Ala kristautasunak bere funtsean dakarren erljio-kritikaren ondorio eta adierazpena? Dena dela, gogoeta teologiko horrek badu zerikusirik sekularpen-prozesuarekin eta, orokorki, kristautasunaren eta *sekularpenaren arteko erlazioarekin.

Nahasmendu kontzeptual honen eta eritzi kontradikziozko horien artean saiatu behar dugu erljioa kontzeptuaren mugak eta lekua bilatzen, *erljio-zientzien abiaburuko hitza denez.

I. ZER DA ERLJIOA?

Misterioa dago erljioaren funtsean. Beraren lehen adieraz, *Jainkoa bera ematen du aditza hitz horrek, baina Jainko hitzak duen inolako determinaziorik gabe. Jainkozkoaren edo Misterioaren esperientzia (norbanakoarena eta gizataldearena) eta esperientzia horren adierazpen "kulturala" da, beraz, hasteko, erljioa. Ik. Jainko bila.

Gizakiak, eta gizataldeak, bere bizipen mundutar, historiko eta kulturazkoaren gain nabari duen zerbaite da Misterioaren esperientzia, eta horren adierazpena bizipen mundutar, historiko eta kulturazko horretan gauzatzen da. Bi alderdi --ikuspegi edo aurpegi-- horiek sakondu nahi ditugu, goian egindako hurbilketa kontzeptualaren bidetik.

1. Misterioaren esperientzia

Erljioen ugaritasunaren barruan, murriztapen eskematikoren bat egin genezake, Misterioaren esperientziaren "definizioa" konkretizatzeke, bestalde. Hiru eratako eta funtsezko esperientziak bereiziko ditugu beraz: a) Misterioa zer mundutarraren dimentsioa; b) Misterioa zer mundutarreko sektorea; c) Misterioa zer mundutarraren konfigurazioa. Ik. Mundua.

Erljiozko dimentsioa. Munduaren eta esperientzia mundutarraren beraren dimentsiotzat hartzen denean erljioa, honek gizabanakoaren eta gizataldearen esperientzia osoa hartzen du. Orduan kulturazkoaren eta misteriozkoaren arteko bereizkuntza esperientzialik ez dago, eta bereizkuntza kontzeptuala ere ia ezinezkoa gertatzen da.

Euskarak berak eta beste hainbat eta hainbat hizkuntzek eta kulturek erljioa adierazteko hitz espezifikorik ez edukitzeak erljiozkoaren bereizkuntza kontzeptualik eza adierazten du, hain zuzen ere.

Erljiozko sektorizazioa. Esperientzia mundutar eta historiko-kulturazkoaren ondoan, alboan edo barruan erljiozkoaren halako sail edo barruti espezifikoa eratzea deitzen dugu sektorizazioa. Funtean bi mundu bereizten ditu esperientzia horrek: **sakratua** (edo misteriozkoaren barruti mundutar berezia) eta **profanoa** (edo kulturazkoaren eremu natural, pertsonal eta sozial arrunta). Ik. Sakratua/Profanoa.

Zer sakratua eta zer profanoa ezin daitezke inola ere nahasi; baina zer sakratuak halako gailentasuna eta kontrola dauka zer profanoari buruz. Horri deritza munduaren sakralkuntza.

Erljiozko konfigurazioa. Misterioa trszendentetzat hartzen da hemen zer mundutarrari buruz, baina ez horretatik aparte sektoretzat. Misteriozkoa eredu trszendentea da, gizabanakoaren eta gizataldearen esperientzia mundutar autonomoaren barruan printzipio eragile gisa dagoena eta diharduena, esperientzia mundutarraren osotasunari nolabaiteko irudiera berria emanez.

Esperientzia mundutarraren *autonomiari, zer sakratuaren kontrolpetik ateratzeari, deritza munduaren *sekularpena. Mundu eta historia sekulartu horietan fedea hartzen du giza

Erlijioa eta erlijioak

esperientzia kulturazkoaren printzipio konfiguratzailer misteriozko eta "transkulturalaren" eginkizuna.

Misteriozkoaren esperientzien hiru funtsezko konkretizazio horiek ez dira erlijio-sistema konkretuen arteko sailkapenerako eskema. Sarritan hiru esperientzia-motak aurkitu ahal izango ditugu halako erlijio historikoaren analisisan, erlijioa bera hartzen dugunean beraren konkretizazio historikoan eta ez beraren esplizitazio teologiko edo dogmatiko soiletan.

2. Kulturazko adierazpena

Kulturaren edozein definizio deskripziozkotan agertu ohi da erlijiozkoaren elementua, beste elementuekin (ideologiarenarekin, ekonomiarenarekin, teknikarenarekin, sozialarekin, juridikoarekin, etab.ekin) batera. Erlijiorik gabeko kulturaren bat izan den ala ez alde batera utzirik, kultur sistema osoaren barruan kulturazko adierazpen-multzo gisa agertzen da erlijioa. Ik. Kultura eta erlijioa.

Misterioaren eta kulturaren arteko erlazioaren interpretazioa ezberdina izan daiteke, goian adierazi dugunaren arabera. Interpretazio ezberdinak aurkitu aurretik, etnologiak lan luzea eta zabala egin du kultura ezberdinetako erlijiozko adierazpideak bilatzen eta biltzen. Bilketa eta deskripzio hutsean gelditzera, nekez iritsiko zen etnologia erlijioaren, adierazpide guzti horiek nolabait bateratuko zituenaren, kontzeptura. Horien interpretazioa, konparazioa eta sailkapenak eginez, erlijio konparatuen historia iritsi da hainbat elementu eta adierazpideen artean ordena egitera eta erlijio ezberdinen nolabaiteko kidesasuna aurkitzera.

Erlijio guztietan daude halako sinesteak, erritoak, erakunde bereziak, ohiturak, etab. kulturaren osotasunaren barruan halako sistema batua eta espezifikoa eratzen dutenak. Horri deitu diote, hain zuzen, erlijioa. Eta hainbat zientzia modernoren (soziologiaren, psikologiaren, politikaren, zuzenbidearen) gai edo kapitulu garrantzizko bihurtu da.

Erlijioaren fenomeno hain zabala --unibertsala?-- eta espezifikoa izanik kultura ezberdinetan, horren barne-egitura orokorrak aztertu beharra zegoen, erlijioaren gaia ondo mugatzera iristeko eta horren zientzia espezifikoa eraikitzeko. Horretan ihardun izan da, hain zuzen, Erlijioaren fenomenologia. Alde batera utzirik erlijioaren balio antropologikoaren eta horren interpretazio filosofiko eta historikoaren inguruko eritziak, gaur egun argi dago erlijioaren alorrak zientziatzeko status-a lortu duela, beste giza zientzien artean. *Katekesietan eta teologi eskoletan ezetik, erlijioak, fenomeno historiko eta kultur sistema espezifikoa gisa, bere lekua du hainbat unibertsitatetan. Horren azterketak bere gorputza eta autonomia berezia lortu du, bestelako giza zientzien parean.

Kultur antropologiaren ikuspegitik, beraz, kultur sistema espezifikoa gisa ulertzen badugu erlijioa, honelatsuko deskripzioa eman genezake: Misterioari buruzko sineste, errito, jokabide, ohitura, erakunde eta bestelako adierazpideen sistema bakoitza da erlijioa.

Erlijio gehien funtsean *bidearen kontzeptua eta *sinboloa dago. Horrixe helduz, hain zuzen, honelako eskema praktikora ekar ditzakegu erlijioaren adierazpide ezberdinak: a) Irakasbidea edo doktrina; b) ihardunbidea edo praktika; c) araubidea edo diziplina. Edota kulturako sistema berezizat hartuz berriro: a) Sineskizunak edo *kredoa (teologia); b) erlijioakizunak edo *gurtza (liturgia); c) *elkartea edo komunitatea (*Eliza, *umma, *axram, etab.). Ik. Gizaki erlijioduna.

II. ERLIJOEN SAILKAPENA

Antropologiatik begiratuta erlijioen barne-egituren kidesasuna, eta erlijioa kontzeptuaren zientziatzotasuna ezaguturik, beharrezkotzat jotzen dute berehala *erlijio-zientzietan dihardutenek, bereziki soziologoei, erlijioen arteko sailkapena egitea, horien arteko ezberdintasunak nolabait eskema errazionalera ekartzeko. Horretara dator funtsean **erlijioen tipologia** izeneko aztergaia. Ik. Erlijioen tipologia.

Erizpideen arabera sailkapen-mota ezberdinak egin ohi dituzte jakitunek. Horietako batzuk azalduko ditugu hemen.

1. Erlijio monoteistak, politeistak eta henoteistak

Jainkoa edo Misterioa "ulertzeko" moduari begiratzen dio sailkapen horrek. *Monoteismoak Jainko bakarra eta absolutua ezagutzen du, izaki guztien gaineratik eta haraindi dagoena;

erljio politeistak hainbat izakitan banatzen du *jainkotasuna, baina horien artean kategoriak ipini ohi dituzte sarritan. Monoteismoaren eta *politeismoaren arteko ikuskera da, hain zuzen, Jainko gorena ezagutzen duten erljioena, aitortuz ala ere beheragoko jainkoak. Ik. Jainko gorena.

Batzutan erljio jakin bat monoteistatza ala politeistatza hartu behar den erabakitzea oso erraza ez den arren, monoteistatza jotzen dituzte, era ezberdinez bada ere, *judaismoa, *kristautasuna eta *islamismoa: politeistatza, berriz, adibidez, *xintoismoa eta *hinduismoaren forma herritarra. Era berean politeistatza jo izan dituzte Grezia eta Erroma klasi-koen erljioak, bereziki *mitologiaren nabarmentzen direnak.

Erljio konparatuen zientzilariek monoteisten eta politeisten artean beste mota hau bereizi dute: Erljio henoteista, alegia. *Henoteismoa da, hain zuzen, Herri edo kulturek beren jainko ezberdina eduki dezaketela onartzea. Henoteistatza jo izan dute sarritan israel-darren lehen garaietako erljio-modua. Henoteismoa deritza, baita ere, jainko guztien bikaintasunak eta dohainak halako izeneko Jainkoari egozteari.

Sailkapen honekin zerikusi hurbilekoa du jainkoen arteko ikuspegi dualistak ere: hau da, bi Printzipio jainkoen arteko bereiz aitorzen dituenak. Horietakotzat jotzen dituzte jakitunek *nazdeismoa eta *zoroastrismoa. Ik. Dualismoa.

2. Erljio etnikoak eta unibertsalak

Bereizkuntza hau ez dute erizpide geografiko soilaren arabera egiten: hau, da erljio bakoitza zenbateraino hedatua dagoen begiraturaz. Erljioaren beraren izaerari eta dinamikari begiraturaz egin ohi dute: hots, halako Herri, etnia edo nazioaren tradizio kulturazkoari lotuta dagoen erljioa, ala berez eta izatez kultura guztietara eta mundu osora zabaltzeko joera eta helburua duen. Azken batez, erljioaren subjektuaren arazoa da: Etnia edo Herri jakin bat den, subjektua gizatalde gisa hartuta, ala gizabanako bakoitza den, edozein kulturatako eta Herritakoa.

Erljio etnikoa *nazio-erljioa ere deitu ohi dute. Horietan komunitate etnikoa edo nazionala bera da salbamen-elkartea, eta bertako herritarra izatea da salbamen-bidea. Horietakotzat jotzen dute *judaismoa. Kristo aurreko azken garaietan judaismoak eratu zuen *proselitismoa etnozentrismo erljiozko horren araberkoa zen.

Alderantziz, erljio unibertsala *misio-erljioa izan ohi da: hau da, sortu eta jatorriz eratu deneko Herritik kanpora zabaltzeko dinamika erakutsi ohi du; erljio-elkartera sartzak ez du inola ere esan nahi Herri hartako herritar bihurtzea. *Salbamena gizabanakoarena da funtsean; salbamen-elkartea erljioan oinarritzen eta gauzatzen da, eta gizabanakoarentzat beraren gizarteazko edo kulturazko elkartean gertatzen da. Erljio unibertsaltzat hartzen dituzte jakitunek: *Zoroastrismoa, *kristautasuna, *islamismoa, *budismoa eta antzinako *misterio-erljioak. Ik. Erljio unibertsala.

3. Erljio mistikoak eta etikoak

Sailkapen honen erizpidea bikoa da: Misterioarekiko erljiodunak duen harremanaren izaera, batetik; eta erljiodunak bere esperientzia mundutarrarekiko duen jarrera, bestetik. Ondorioz, bestelako bereizkuntzak ere nabarmentzen dituzte jakitunek.

Bestelako sailkapenetan baino zailagoa da hemen erljio jakinen arteko bereizkuntza egitea; oso sarritan gertatzen da erljio-sistema berberean joera edo erljioakera mistikoak eta etikoak agertzea, *izpiritubideen edp *erljioakera arabera.

Erljio --edo erljioakera-- mistikoak *mistizismora jotzen dute, hain zuzen. Mundua erlatibizatu egiten dute eta esperientzia mundutarra baliogabetu. Era berean, Misterioarekiko batasuna nabarmentzen eta lantzen dute beren izpiritubidean, norbanakoaren nortasuna Misterioan suntsitzearaino batzutan. Joera horixe azaldu ohi du, baita ere, lantzen duten otoizkera estatiko-mistikoak. *Monismora jotzen dute metafisikan; *esoterismora erljiozkoaren ikuskeran; indibidualismora biziera erljiozko-etikoan. Ik. Estasia.

Erljio --erljioakera-- etikoa profetikoa ere deitu ohi dute, bereziki judaismoko *profetengan agertzen eta nabarmentzen delako. (Ik. Erljio profetikoa). Munduko elementuen --materiaren, historiaren, giza balioen, etab.en-- erljiozko balioa azpimarratzen du horiek: horiek jainkoen arteko *agerkudearen bidetza eta jainkoaganatzeko "sakramentutzat"

Erljioa eta erljioak

hartzten ditu. Misterioa edo jainkozkoa bera ere giza bizierarekin eta jokabidearekin zerikusirik duen Norbait gisa ulertzen du erljio etiko-profetikoa; Hori da, hain zuzen, gizakiak munduan bete behar duen erantzukizun etikoaren oinarri traszendentea. Bai erljiozko bizieran *elkartea eta bai biziera moralean gizartea funtsezko erreferentzia dira erljio etiko-profetikoarentzat. Ik. Sakramentua.

4. Izadi-erljioak eta histori erljioak

Misterioaren *hierofaniako bideen araberrako sailkapena da hemengo hau.

Izadi-erljioak munduko gauza naturaletan aurkitu ohi du, izan ere, Misterioaren hierofania: jainkozkoaren *sinbolotzat eta bitartekotzat hartzen ditu horiek. Bestalde, erljiozko biziera bera funtsean izadiaren fenomenoei lotuta dago: ziklo kosmikoei, nekazaritzako sasoei, fenomeno atmosferikoei, etab. Gaur kristau diren Herri askotako aurreko erljioak izadi-erljioak izan ziren: Ik., esate baterako, Izadi-erljioa Euskal Herrian. Baina kristautasunak berak izadi-erljioaren elementu asko bereganatu ditu. Ik. Nekazal erljioa; Erljio telurikoa; Astro-erljioa.

Histori erljioarentzat, berriz, izadia baino gehiago, giza historia bera da Misterioaren hierofaniaren agerlekua eta Harekiko harremanaren bitartekoa. Historiako gertakarien bitartez agertzen da jainkozkoaren gertutasuna eta eragina, eta horien bidez gauzatzen du erljiodunak bere Misterioarekiko atxekimendua.

*Judaismoa eta *kristautasuna jotzen dituzte histori erljioen lekuko nagusi-nagusitzat. Kristautasunarentzat *Jesukristo, pertsonaia historikoa bera, da Jainkoaren hierofania edo *agerkunde behinena eta azkenburukoa.

Histori erljioa eta erljio historikoa ez dira nahastekoak, nahiz eta izadi-erljio nabarmenenak ia beti ez-historikoa izan. Erljio historikoa deritza, zuzen-zuzen, *fundazio-erljioari, hau da, bere sortzaile eta eratzaitzat halako pertsonaia historikoren bat ezagutzen duenari. Erljio historikoa gehienetan *liburu-erljioa izan ohi da. Ik. Erljio historikoa.

5. Erljio naturala eta errebelazio-erljioak

Errebelazio-erljioaren aurrez aurre arrazoi-erljioa ere dei genezake bestea. Haiek asko diren bitartean erljioen artean, arrazoi-erljioak bakarria izan uste du, giza arrazoi-men unibertsalari dagokiona.

Munduko erljioen aniztasuna gainditzeko asmoz, hain zuzen, ekinaldi bat baino gehiago egin dute historian zehar erljio bakarria eratzeko, dauden erljio nagusi guztien funtsezko elementuak bilduz eta bateratuz, edota errebelazio historiko guztiak ukatu eta Misterioa edo jainkozkoa ezagutzeko arrazoimenaren ahalmenean oinarrituz. Ik. Erljio naturala; Deismoa; Bahismoa.

Bestelako sailkapenak: erljio atestatzaileak eta kontestatzaileak, liburu-erljioak eta liburugabeak, etab. sarritan goian egindako sailkapenekin batera doaz, eta haiekin zerikusihandia dute. Ik. Erljio atestatzailea; Erljio kontestatzailea.

III. ERLJIOEN BANAKETA: ERLJIO-ESTADISTIKA ETA -GEOGRAFIA

Erljioen estatistika (erljioz erljioa nahiz lurraldez lurraldekoa) egiteak bere zailtasun (eta eragozpen) espezifikoa izan ohi ditu.

Lurralde edo estatuetakoko egoera erljiozkoaren datuak ematean, honelako buruhauste espezifikoa zirkuitu ohi dira: kanpotarren eta etorkinen erljioa adierazi ala ez; hainbat estatutan, bestalde, ez dago erljioari dagozkion estatistikarik, bestelakoekin batera, bereziki estatu komunistetan; erljioen bat ofizialtzat ezagutzen dutenetan, berriz, sarritan ez dago gutxiengoan dauden beste erljioen estatistikarik: gainera erljio-kidetzapen bikoitza maiz gertatzen da lurralde askotan.

Horiei geitu behar zaie beste honako zailtasun garrantziko hau: erljiozko kidezapenaren erizpidearena alegia: Erljio batzutan jaioberritan edo haurtzaroan egiten dute

*sarbidadapen-errittoa; bestetan adoleszentzian; bestetan ez dago sarbidadapen-errittoa berezi-rik... Halako erljioiko gurasoan seme-alabak ere kontutan hartu behar ote dira erljio bere-koztat? Eta sarbidadapen-errittoa bete duten guztiak ahal dira erljioakidetzat hartzekoak, ala praktikariak bakarrik? Erljio-praktika ala sinemen-atxekimendua da erabakiorra estatisti-koarako?

1. Erljioen zifra orokorrak

Ondoko taula hau *L'état des Religions dans le Monde* (La Découverte, Ed. Le Cerf, 1987) liburutik hartuta dago. Bertan adierazita dagoenez --eta agian balio du bestelako datu esta-tistiko guztiei buruz ere, ez daude horiek absolututzat hartzerik; "ordres de grandeus" gisa hartu behar dira.

Munduko Erljioak 1900etik 2000ra

	1900	1970	1986	Aurrikuspena
Kristauak	484.894.200	1.169.369.400	1.508.040.200	1.921.687.500
Katolikoak	226.419.400	672.319.100	886.698.600	1.132.541.500
Protestanteak	142.577.100	353.647.800	449.852.300	589.327.000
Ortodoxoak	115.897.700	143.402.500	171.489.300	199.819.000
Musulmanak	200.102.200	550.919.000	837.308.700	1.200.653.000
Hinduistak	203.033.300	465.784.800	661.371.700	859.252.300
Budistak	127.159.000	231.672.200	300.146.900	359.092.100
Animistak	106.339.600	88.077.400	91.365.600	100.535.100
Erljio berriak	5.910.000	76.443.100	108.505.600	138.263.800
Juduak	12.269.800	15.185.900	18.023.700	20.173.600
"Txinatar Erljioa"	380.403.700	214.391.500	187.994.000	158.470.600
Sikh-ak	2.960.600	10.612.200	16.149.900	23.231.700
Beste erljioak	20.503.400	32.015.100	35.092.800	45.781.600
Agnostikoak	2.923.300	543.065.300	825.072.900	1.071.888.400
Ateoak	225.600	165.288.500	213.893.500	262.447.600

Liburuaren iturria: *International Bulletin of Missionary Research* (quadrimensuel oecuménique), World Christian Encyclopedia.

Datuon arabera, munduko biztanleak 4.802.000.000 ziren une hartan. (1987ko uztail hone-tan ospatua dugu 5.000.000.000garrenaren jaiotza).



Taula horretan bi gauza nabarmendu nahi ditugu bereziki:

- Erljioen estatistika ematean era berean agnostikoak eta ateoak aipaturik daude; hor-ien datuak ezagutzea garrantzizkoa da, izatez, erlijiodunen datuak beren lekuan ipintzeko, eta horien eta erljioagabeen multzoaren gorabeherak eta erlazioa ikuspegi historikoz ezagutzeko. Ik. Ateismoa; Agnostizismoa.
- Ikuspegi historiko eta eboluziozkoa ematen digu hain zuzen goiko taulak. Hau da, 1900., 1970., 1986. urtetako dautak eta 2000. urterako aurrikuspena batean. Liburuan bertan aditzera ematen dutenez, 2000. urteko aurrikuspen hori, 1900., 1975. eta 1980. urteetako datuen eboluzioa ikusiz eta beste honako aldakinak kontutan edukiz aterea dute: hots, lurralde bakoitzeko biztanlego-hazkundera, erljioen araberrako jaiotza-tasa, *erljio-aldaketengatik bakoitzak galtzen edo irabazten dituen tasa.

Erljiodun guztien kopuruaren gain erljio bakoitzeko kideen ehunekoak, batetik, eta biztanle guztien kopuruaren gain erljio bakoitzeko kideen eta agnostikoen eta ateoan kopu-ruaren ehunekoak, bestetik, ateratzen baditugu, honako grafiko hauek edukiko ditugu.

3.763.999.100 erljiodunen gain

4.802.965.500 biztanleen gain



2. Erljioen lurraldeak

Erljioen geografia egitea ez da batere erraza: batetik, estatistikei buruz lehen aipaturiko zailtasunengatik; bestetik, mundu osoko erljio-aniztasunagatik. Erljiozko elementuen, multzoen eta sistemen gurutzamendua handia da gaur, turismoa, emigrazioa eta bestelako jende-mugimenduak direla tarteko, eta komunikabide sozialek hartu dituzten hedadura eta eraginagatik. Erljio handi guztiak, eta ez handiak ere, sortu ziren ingurune kulturazko, sozial eta geografikotik bestetara hedaturik daude, nahiz eta ez izan *misio-erljioak eta berez dinamika unibertuala dutenak.

Hemen eskaintzen dugun lurraldeen arabera erljioen banaketaren taula sintetikoa **Legende zur Karte der Religionen und Missionen der Erde** (Evangelische Missionverlag, Kornthal-Münchingen, 1979) iturritik hartuta dago. Irakurlea konturatuko denez, aurreko taulatik ezberdin xamarrak dira hemengo datuak, erljio bakoitzeko kideen kopuruari dagokionez. Besteren artean, 4.000 milioi biztanleen kopurua hartzen dituelako oinarritzat; 1986koan, berri, 4.802 milioira igo dira munduko biztanleak. Dena dela, hemen dagokiguna, erljio bakoitzaren zona geografiko trinkoenak agertzea da; horretan ez dugu uste aldakuntza nabarmenik egongo denik 1979tik gaur arte.

Kristautasunari dagokionez, hiru talde nagusiez (*katolizismoaz, *protestantismoaz eta *ortodoxiaz) gain, **beste Elizak** bereiz aipatuta daude. Aurreko taulan "txinatar erljioa" izeneko zutabean, hemen "konfuziarrak" jarri dugu; daoistak, berriz, beraien aldetik aipatuta daude. Taula honetan espezifikoki aipatuta dauden xintoistak eta jainistak, "beste erljioak" zutabean daude aurreko taulan. Ik. Konfuzianismoa; Daoismoa; Xintoismoa; Jainismoa.

Erljioak lurraldeen arabera

(Zenkakiak milioitan)

ERLJIOAK	Europa (SESB gabe)	SESB (Europa/Asia)	Afrika	Asia (SESB gabe)	Ipar Amerika	Hego eta Ertamerika	Australia Ozeania	Guztira, milioitan
Biztanleak	475,969	258,9	413,619	2.263,204	239,138	327,615	21,555	4.000
Kristau guztiak	456,694	-	149,543	96,593	187,278	310,245	18,708	1.219,061
Katolikoak	263,088	3	49,944	61,014	57,762	291,375	5,365	731,548
Ebanjelikoak	112,826	3	54,503	31,737	82,052	10,871	12,933	307,922
Ortodoxoak	42,081	30	20,904	3,842	4,006	0,674	0,550	102,057
Bestelakoak	-	2	26,192	-	43,458	7,884	-	79,534
Juduak	1,27	2,648	0,6	2,823 (Israel: 2,723)	6,420	0,7	0,86	15,321
Islamiarrak	8,993	30	168,849	448,807	0,020	0,3	0,086	716,995
Hinduistak	0,600*	-	0,976*	528,304*	-	0,56*	0,43*	530,87*
Budistak	0,17*	-	0,013*	366,336*	0,3*	0,2*	0,043*	367,062*
Konfuziarrak	-	-	0,008*	160* (Txina: 150*)	0,006*	0,003*	-	160,017*
Animistak	-	-	93,002*	10*	-	20,871	0,237*	124,110
Sikh-ak	-	-	-	11,590	-	-	-	-
Xintoistak	-	-	-	40*	-	-	-	-
Daoistak	-	-	-	40*	-	-	-	-
Jainistak	-	-	-	3,05*	-	-	-	-
Erljio berriak	-	-	-	18*	-	-	-	-

Oharra:
* kalkulaturiko kopurua

Erljio nagusi honen geografiaren araberako zabalkundea azaldu nahi dugu hemen, banan banan, handienetik hasita. Horien mapa, bestalde, erljio bakoitzari dagokion artikuluan ikus daiteke. Hemen aipatuko ditugun ehunekoak biztanleen kopuruaren gainekoak dira.

a) Kristautasuna

*Kristautasuna erljio unibertsal eta absolutu gisa ulertu dute kristauak. XX. mendea igaro ondoren, bera da zabaldiena eta kide gehien dituen munduan; hala ere beraren erljio unibertsalak izateko asmoa uste eta irakatsi teologikoan dago oraindik; baten batek porrot historikotzat jo dezake. Porrota izan daiteke, ordea, gizadiaren kopurua eta kristauen kopurua konparatzen baditugu; baina munduzabaleko herriak eta kulturak kontutan hartzen badi-tugu, beraietan sartua dagoela esan daiteke nolabait. Besterik da noski zenbaiteraino berta-kotu den kristautasuna; bertako kristautasun eta Eliza originala sortzeraino, ala beste non-baitetik eramandako Eliz eredu gisa.

Kontinente guztietara dago zabaldurik kristautasuna, batez ere Europara eta Amerikara: bi kontinente oso hauek zabaldurik dago. Asian, ordea, kristautasunaren bertakotasuna txikia dela esan daiteke, Hego Korea eta Filipinak aparte. Indian % 3,9, Ipar Korean % 0,9, Japonian % 3, Indonesia, % 11, Txinan % 0,2. Gehien-gehiengoa da Australian eta Zelandan Berrian. Afrikan, azken bi mendeotan kristautasunak indar handia hartu baldin badu ere, oso ezberdina da horren zabalkundea parte batetik bestera. Afrika iparraldean ia hutsa den bi-tartean (bertan *islamismoa da erabat nagusi), kristautasunaren konfesio ezberdinak zabaldu dira Afrikako beste alderdietara: erdialdera (69,3, batez ere katolikoak); hegoaldera (66,8, batez ere protestanteak); mendebaldera (28,9, bereziki protestanteak); ekialdera (% 57, be-reziki katolikoak); baina ekialdean gehiengoa (% 17,2) aspalditik bertakoturiko ortodoxoak dira, bereziki Ethiopian (% 52).

Kristautasunaren hiru talde nagusien zabalkundeari begiratzen badiogu, berriz, honako ohar hauek egin genitzake: Ortodoxoak Europa ekialdean daude bereziki zabaldurik (Grezia, Bulgaria, Errumania, Yugoslavia, etab.); Errusian % 15 edo dira ortodoxoak; AEBetan ere beren kopuru garrantzizkoa dute ortodoxoek (% 1,3 inguru). Protestanteak Europa iparraldean (Irlanda aparte), Ipar Amerikan, Hego Korean, eta Zelandan Berrian eta Australian daude kon-tzentratuak; Hego Afrikan, Filipinetan eta Ginea Berrian ere % 30etik gora dira protestan-teak; Indostaneko penintsulan presentzia nabarmena du bereziki *anglikanoak. Katolizismoa Europa hegoaldean, Hego Amerikan eta Ertamerikan da erabat nagusi; Filipinetan % 84 dira katolikoak; Australian, % 30,6; Kanadan presentzia oso garrantzizkoa du; Afrikan, Asian eta Australian asko jaisten da katolikoek ehunekoak.

b) Islamismoa

Arabian sortu zen *islamismoa, eta, geografiatik begiraturik ere, horixe izan du bere erdigunea zabalkunde aldetik; hortik zabaldu zen Ekialde Hurbilera (Turkia, Syria eta Jorda-nia-ra), Ekialde Erdikora (Saudi Arabia, Hego Yemen, Irak, Iran, Afganistan, Pakistan). Indonesian % 43,4 eta Malasia % 49,4 dira musulmanak. Errusiako Aral aldera ere zabaldu da islamismoa, eta Indiako eta Txinako lurretaraino ere bai. Bestalde, mendebalde aldera zabal-du da, bereziki Afrikako iparraldeko zerrenda zabala hartuz (Algeria, Libia, Marokko, Tunisi-a); Afrika mendebaldean ere bai (Gambia, Mauritania, Mali, Nigeria, Senegal), eta Afrika ipar-ekialdean (Egipto, Somalia, Sudan); gutxixeago sartu da Afrika erdialdean (Liberia, Ghana, Txad, etab.).

Europara ere sartu da islamismoa, bereziki inperio turkoarekin batera. Gaur egun Alba-nian, Bulgarian eta Yugoslavian bereziki % 10etik gora dira musulmanak. Frantzia ere % 3 bat musulmanak dira.

c) Hinduismoa

*Hinduismoaren lurraldea indiar azpi-kontinentea da, eta bereziki Indiar Batasuna. Sarritan, hain zuzen, indiarra eta hinduista berdintzat jotzen dituzte askok; baina ez dago nahasterik. Indian bertan 80.000.000 musulman badira, eta 20.000.000 kristau, 3.000.000 jai-nista, aparte *parsiarrek eta beste talde txikiagoak. Ik. Sikhismoa; Jainismoa.

Indian bertan % 79 dira hinduistak (biztanleak, 751 milioi inguru). Gainerakoan Bangla Desh-en 12.000.000 inguru biztanleetatik % 12,7 edo hinduistak dira eta % 85 musulman; Sri Lanka-n gehiengoa budista da, baina biztanleetatik % 16 edo hinduistak dira (biztanleak, 16 milioi inguru).

Erljioa eta erlijioak

Nepal da, Indiaz aparte, biztanlegorik handi-handiena hinduista duena: % 89tik gora, alegia.

d) Budismoa

Indian, Ganges ibaiaren ibarretan sortu zen *budismoa; baina historian zehar Indiatik kanpora zabaldu da, Indiatik bertatik ia desagertuz. Dena dela budismoaren zabalkunde geografikoa ikusteko bi "konfesio" edo eskola handiak bereizi behar dira: *Hinayana (edo Hegoaldeko eskola) eta *Mahayana (edo Iparraldeko eskola).

Indian bertan 4.000.000 inguru dira hinduismoaren jarraikiariak; kontuan hartzekoak dira gainera Tibet-eko erlijiozko jazaraldietatik ihesi, Indian errefuxiatutako 100.000 tibetarrak. Dena dela, eraso eta guzti, Tibet-en irauten du mahayana budismoak. Era berean eskola bera zabaldu zen Txinara (gaur egun bizitasunik ez duena), Japoniara (non bertako erlijio tradizionalarekin, *xintoismoarekin, batera *sinkretismo gisakoa sortu zuen: bertan *Zen eta geroago *nitxiren forma hartu zuen budismoak).

Hinayana eskola hegoaldera zabaldu zen: Birmania, Laos, Vietnam, Thailandia, Kanputxea, Sri Lanka. Laos-en eta Kanputxean eraso handiak jasan ditu budismoak. Oso bizirik dirau Sri Lanka-n, Birmania-n eta Thailandia-n.

Budismoaren Zen eskola zabaldu da zerbait Europara (10.000 inguru) eta bereziki AEB (100.000 inguru); bestelako eskolak ere zabaldu dira, ordea.

e) Konfuzianismoa

Txinako "etika erlijiozkoa" da jatorriz eta berez *konfuzianismoa; hala ere, txinatarretatik oso gutxik daukate beren burua erlijio konfuzianistakotzat, besteren artean, konfuzianismoa ez dutelako erlijiotzat hartzen.

Hala ere, konfuzianismoaren etika erlijiozkoa zabaldu da Koreara (5.200.000 biztanlek daukate konfuzianistatzat beren burua) Vietnam-era, Japoniara, ez erlijio organizatu gisa, baina bai konfuzianismoaren eragin etiko-erlijiozko eta kultural gisa, eta Asiaren hego-ekialdera eta Singapore-era, Indonesiara, etab. Bestalde, Txinatik mundu osora zabaldu direnak normalean beren tradizio konfuzianistari eutsi diote.

f) Judaismoa

*Judaismoaren zabalkunde geografikoa ikustean, bi tradizio historiko handiak dira bereiztekoak: Askenaziarena eta sefarditena. Lehenak dira ugarrienak: % 75 inguru.

Sefardita gehien-gehienak Israel estatuan bizi dira. Askenaziak, berriz, Europa iparraldean, Errusian eta Amerikan daude sakabanaturik. Europakoak, berriz, erdiak baino gehiago Errusian bizi dira, eta gainerantzeko gehienak Frantzia eta Britainia Handian. Amerikakoak, berriz, AEBetan daude bereziki kontzentratutik (6.420.000 dira bertako juduak). Latin Amerikakoetan, gehien-gehienak Argentinan bizi dira (600.000tik gora). Asian, ordea, oso kopuru txikia dira juduak. Ozeanian eta Australian juduen kopuru handia bizi da, taulatik atera daitekeenez; baina horietako gehiengo handia Australian bizi da, eta askozaz gutxiago Ozeanian.

IV. ERLIJIOEN ETORKIZUNA

Erlijioari buruz hurbilketa definiziozkoa egin ondoren eta erlijioei buruz begirada deskripziozkoa eman ondoren, egokia dirudi aurrera begira erlijiozko fenomenoaren etorkizunaz oharren batzuk egitea.

Hemen ez gara erlijiozkoaren geroaz ihardungo, historiaren filosofiako ikuspegitik edo; erlijio historikoen aurrerako zenbait arazo aipatu nahi ditugu soilik. Eta ez ditugu erlijio guztiak --ezta handienak ere-- banan-banan aztertuko. Horien aurreari begirako ohar orokor batzu egitea besterik ez da hemengo asmoa.

Gaurko munduzabaleko kultur dinamikaren hiru gertakari nagusi hauei behar diete aurre egin erlijio historiko handi guztiek:

1. **Planetarizazioa.** Horrek ez du adierazten zibilizazio "teknikoaren" munduzabaleko zabalera hartzea bakarrik; hori ere badago noski. Zibilizazio-mundu historiko handien barru-

tien irekiera adierazten du bereziki; eragin-zentru nagusi horien gainetik munduzabalaren xede-batasunaren ikuskera dago funtsean. Munduzabaleko mugimendu orokor horretan kultura etniko eta nazionalek beren leku berria aurkitu behar dute.

Horrekin batera, bloke ideologikoen suntsipena gertatzen ari da, munduikuskeraren ezberdinen etengabeko gurutzapenaren eraginez. Bloke erlijiozko eta historiko handien gurutzapena fenomeno zabal horren barruan kokatzen da.

2. Informatizazioa. Informazioaren teknifikazioa adierazten du funtsean horrek, elektromikaren bidez lortu dena. Hona bi ondorioak: ahalbide ikaragarriak mezuak bizkor eta erraz zabaltzeko, batetik, eta bakoitzarentzat informazioa eskuratzeko bideak erraztea, bestetik.

Informazioaren galaxia berri honen barruan norbanakoa aurkitzen da, bestalde, izar galduaren antzera, alde guztietako eta tankera denetako mezuen eta albisteen "bonbaketa" jasaten duela; zalantzarik gabe horrek norberaren nortasuneko gunea ikutzen du, eta nortasunaren eraketan bertan du eragin izugarria.

Gainera, informazioa boterea da; eta horren "jabetza" eta manipulazioa da boteredunen armarik nagusia. Estatuaren boterea gero eta handiagotzea eta orokortzea ekarri du informatizazioak, herritarren kontrola ia erabatekoa bihurtzeraino eta informatizazio totalizatzailearen bitartez estatu "totalitarioa" eratzeraino.

3. Sekularpena. Kulturaren sekularpenak, aurreko bi ezaugarriekin loturik, zuzeneko zerehana du erlijioen etorkizunari buruz (ik. Sekularpena). Batetik planetarizazioak, munduikuskerak gisa, eta informatizazioak, boterearen euskarri gisa, erlijioaren eginkizuna betetzen dute nolabait; bestetik, erlijiozko "erlatibismoa" eta erlijio-ofizialik eza dakartza sekularpenak. Ik. Erlatibismoa.

Lau aldetatik begiratuko diogu erlijioen etorkizunari, aipaturiko kultur dinamika modernoaren ezaugarri nagusi horien eragina kontutan edukiz:

1. Erlijio bakoitzaren barneko arazo orokorrak; 2. Erlijioen arteko harremanetako arazoak; 3. Sekularismoari buruzko erlijioen etorkizuna; 4. Erlijioen funtzioak gaurko eta biharko munduan. Jakina, aipatu besterik ez ditugu egingo alderdi horien inguruko arazoak.

1. Erlijioen barne-arazo orokorrak

Erlijio "handiek" historia zaharra dute, eta tradizio handia eta astuna dute atzetik. Hori beraiekin indarra da, batetik, baina baita beraiekin zama ere, mundu modernoari begira.

Bizirik dirauten erlijio handiek beren barne-zatiketak edo *zismak eduki dituzte historian zehar. Garai "hartan" drama historiko larriak izan dira batzutan; bestetan, agian erlijiozko bizitasunaren eta oparotasunaren ezaugarriak. Gaur egun, ordea, badirudi gehienetan mundu berriari egoki eta eraginkorki erantzuteko eragozpena besterik ez direla "eten" historiko horiek, eta erlijio bakoitzaren barne-kontzentrazioa beharrezkoa dela.

Misio-erlijioek ezekiz, beste guztiek ere inoiz baino larriagoa dute gaur egun beren berberatasuna eta jatorritasuna gordetzearen arazoa, bereziki bestelako kulturetara moldatu beharrean, edota bestelako erlijioen mezuak erlijio-elkarteetara komunikabideen edota *proselitismoaren bidez ia etengabe iristen direnean. Berberatasunaren eta beren buruekiko leialtasunaren arazoa larriagoa gertatzen zaie hiru erlijio monoteista handiei: *judaismoari, *kristautasunari eta *islamismoari.

2. Erlijioen arteko harremanak

Erlijiozko mezuen gurutzapena, besteena bezala, sekula izan ez duten adinako arazoa dute erlijio-elkarteek. Fenomeno horren erdian ez dira erlijioak berak bakarrik gertatzen; gaurko gizon-emakume erlijiodunak —edo erlijio gabeak— gertatzen dira ukituak batez ere, bakoitzaren nortasun erlijiozkoaren batasuna ukitzen duelako. Erlijiozko *sinkretismoaren fenomeno oso zaharra baldin bada ere, gaur horrelako zenbait erlijio sinkretistak eduki duen arrakastak badu zalantzarik gabe zerikusirik fenomeno horrekin.

Horrekin lotu behar da, seguruenik, goian aipaturiko erlijiozko erlatibismoa, *sekularpenaren ondorioa. Botere publikoa eta gizartea sekulartuak baldin badira, erlijiozko elementuak ez du garrantzirik elkarte politiko nahiz sozialaren kohesiorako. Alde horretatik, mundu sekulartuan erlijio-askatasunak bidea egina daukala esan daiteke, eta *erlijio-gerrak historiara igaroak direla.

Erligioa eta erlijioak

Guzti horren arabera, etorkizunean erlijioen arteko irekitasuna orain arte ezagutu ez duguna izango dela dirudi, elkarrekiko onarpenean eta errespetuan oinarrituko dena. Horren aidaerazgarria da erlijioen arteko "ekumenismoa", atzera urrura gabe pentsaezinekoa.

3. Erlijioak eta sekularismoa

Erlijioen arteko irekitasuna eta lankidetzeta da *ekumenismoaren aurpegietako bat; bestea, sekularismoaren aurrez aurreko defentsa da. 1946an sorturiko **Nazioarteko Aliantza Ebanjelikoak**, protestanteen artean kristau-ekumenismoaren mugimenduen sorreran dagoenak, kristau-fedearen defentsa zuen helburutzat, zientismoaren eta ateismoaren aurka. Baina *ekumenismo historikoak bere sustrai eta eragile nagusiena munduzabaleko kristau-misioan eduki du.

Sekularismoak erlijioaren lekoratzea darama: hau da, teknika, zientzia, politika sekularlartuek beren *autonomia eta nagusitasuna irabazi duten lekuan, erlijiozkoak garai batean betetzen bide zituen funtzio haiek betetzen dituzte. Egoera horretan erlijiozko hainbat indarrek jarrera ezberdinak hartu ohi dituzte, erlijio batean nahiz bestean: a) **Errestaurazionismoa**, edo erlijioen botere sakratua leheneratzea, erlijio-elkartearen indarberritze instituzional eta ideologikoa gaurkotuz, erakunde indartsu eta bateratu gisa sekularismoari erantzuteko; b) ***Fundamentalismoa**, sekularismoaren erasotik babesteko, fedearen eta liburu santuen interpretazio akritiko eta irrazionalari helduz; traszendentalismoaren babesa bilatzea dakar horrek sarritan, erlijioaren mundu-barruko funtzio historikoari muzin eginez; c) ***Moralismoa**, erlijiozko mezu traszendentea mundutartuz, mundu sekularluaren beraren funtzio etiko soilera bihurtzen duena erlijioa, *misio "traszendentearen" zentzua galduz.

Ekumenismoa erlijio guztietara zabaltzean, zer izango da horren helburua: erlijioen frontea izatea, ateismo-sekularismoen aurkakoa, ala erlijioen elkarlana eratzea, beren funtzio bateratu eta munduzabalekoa hobeto betetzeko mundu sekularlu, planetario eta informatizatuan?

4. Erlijioen funtzioa gaurko eta biharko munduan

Erlijiozkoaren --eta erlijioen-- mundu-barruko funtzioaren arazoa bizi-bizian agertu da, izan ere, sekularismoaren aurrerakadarekin, eta funtsean sekularpenaren prozesu osoaren eraginez. Horiek *Misterioarekiko erreferentzia beren izatezkoa eta baitezpadakoa baldin badute, badirudi beharrezkoa dutela beren funtzio mundutarra, mundu sekularluan beren lekua zurituko baldin badute.

Zein da etorkizunerako erlijioek irabazi beharko duten leku eta funtzio historikoa? Ez dirudi, teknika, zientzia edo filosofia argitzera iritsi ez diren barruti mundutarrean basterik izango dutenik; besteren artean, gero eta estuagoa izango dutelako barruti hori.

Zientziaren eta teknikaren gaineratik gizadiak dituen arazo funtsezkoetarako mezua eta erantzuna duten neurrian beteko dutela dirudi erlijioek beren "mundu-barruko" funtzioa, mundu sekularluak onartzeko modukoa. Hirutan bana daiteke agian funtzio hori: a) **Funtzio komunitarioa**: *Elkartearen edo komunitatearen zentzu berezia dute erlijioek, asoziazioa "utilitarista" gaiztuzten duena; akulturazio planetarioaren barruan erlijioek badute eginkizuna, giza **elkarte** funtsezkoen --etnikoaren, kulturazkoaren, nazionalaren etab.en-- eta komunitarismoaren defentsan. b) **Funtzio pertsonala**: hau da, botere politikoaren totalizazioaren (totalismoaren) aurka, erlijioei dagokie norbanakoaren barne-bizierentzat eta barne-libertatearentzat barruti egokia sortzea eta eratzea, norbanakoaren erdigune pertsonala informatizazioaren erasotik atereaz. c) **Funtzio etiko-profetikoa**: Mundu sekularluan mezu etiko-profetikoa dute erlijioek izpiritu ekumenikoz zabaltzekoa. (Ik. Profetismoa). Mezu hori da: Herrien arteko bakearena; justiziarena; klase sozialen eta lurralde aberats eta pobreen arteko zuzengabekeriaren kontrako mezua etengabe zabaltzea; askatasunarena, estatuaren eta edonolako botereren idolatrizazioaren aurkakoa, eta bereziki diktaduren aurkakoa; gizon-emakume guztien arteko senidetetasun eta berdintasunarena, edonolako arrazismo eta bestelako zabalakuntza sozialaren aurkakoa, eta giza duintasunaren eta nortasunaren balorea defendatuko duena; biziaren defentsarená, berorren baldintza ekologiko, ekonomiko, sozial eta kulturazkoetan.

Funtzio etiko-profetiko hori jatortasun eta leialtasun osoz --agian *diasporako giroan, eta norberaren nahiz erlijiozko elkartearen testigantzan oinarritua eta ez *botere sakratuan-- betetzea dagokie erlijioei mundu sekularluaren barruan eta horren autonomia gordez, beren mezuari errotikoaren kutsu eta indarra emanaz, sinesten duten munduaren *traszendenteziaren eta historiaren burutzapen eskatologikoaren arabera. Ik. Eskatologia; Misterioa.